

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

«KABIA» FORU ORGANISMO AUTONOMOA

KABIA foru organismo autonomoko Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du 2022ko abenduaren 22ko ohiko bileran:

“Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera, KABIA foru organismo autonomoak, 2022ko maiatzaren 25eko Gobernu Batzordearen erabakiz, aldi baterako enplegua egonkortzeko plazei dagokien Lan Eskaintza Publikoa onartu zuen.

Lan Eskaintza Publiko hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko maiatzaren 30ean, eta, ondoren, akats zuzenketa bat zela eta, aldatu egin zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022ko abuztuaren 5ean argitaratutako iragarkian azaldutakoaren arabera.

Ondoren, Eibarko Lan Arloko 1. Epaitegiaren 201/2022 zenbakidun epaia eman da, KABIako langile baten finkotasuna aitortu duena.

Aipatutako epai irmoa betez, 20/2021 Legearen esparruan onartutako 2022ko Lan Eskaintza Publikoaren I. eranskina aldatzea beharrezkoa da; izan ere, eskatzaileak klinikako laguntzailearen lanpostuari dagozkion zereginak betetzen ditu, eta lanpostu horri lotutako plaza aipatutako Enplegu Publikorako Eskaintzan sartu zen, lan kontratupeko langileentzat deitutako plazen zerrindaren barruan, EPEa onartu zen unean plaza huts izaera zuelako.

Era berean, aurreikusten da, datozen hilabeteetan antzeko epaiak eman ahal izango direla, balizko finkotasun adierazpenarekin, eta horrek, berretsiz gero, KABIA behartuko luke egonkortzeko Lan Eskaintza Publikoan sartutako dotazioen kopurua berriro ere aldatzera, horiek murriztuz.

Ildo horretan, zuhurra da KABIako gerenteari ahalmena ematea, finkotasun-epai berriak ematen badira, ahalik eta lasterren alda dezan aipatutako Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako dotazioen kopurua, eta erabaki hori berehala argitara dezan.

Bestalde, sukaldeko laguntzaile plazaren euskarazko izenean akatsa antzeman denez, zuzendu egin behar da.

ORGANISMO AUTÓNOMO FORAL «KABIA»

La Junta de Gobierno del organismo autónomo foral Kabia, en sesión ordinaria celebrada el 22 de diciembre de 2022, ha adoptado el siguiente acuerdo:

“De conformidad con lo dispuesto en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, el organismo autónomo foral KABIA, por acuerdo de la Junta de Gobierno del día 25 de mayo de 2022, aprobó la Oferta de Empleo Público correspondiente a las plazas de estabilización de empleo temporal.

Dicha Oferta de Empleo Público fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 30 de mayo de 2022 y fue posteriormente modificada, con motivo de una corrección de errores, en los términos expuestos en el anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 5 de agosto de 2022.

Con posterioridad, se ha dictado la sentencia nº 201/2022 del Juzgado de lo Social nº 1 de Eibar, la cual ha declarado la fijeza de una trabajadora de KABIA.

En cumplimiento del fallo de la referida sentencia, la cual es firme, resulta necesario modificar el anexo I de la Oferta de Empleo Público de 2022 aprobada en el marco de la Ley 20/2021, toda vez que la trabajadora demandante desempeña las tareas inherentes al puesto de auxiliar de clínica, y la plaza asociada a dicho puesto fue incluida en la referida Oferta de Empleo Público, dentro de la relación de plazas convocadas para personal laboral, al tener la consideración de plaza vacante en el momento de su aprobación.

Se advierte, asimismo, que existe la posibilidad de que en los próximos meses puedan dictarse sentencias en similar sentido, con una eventual declaración de fijeza, lo que, de confirmarse, obligaría a KABIA a modificar nuevamente el número de dotaciones incluidas en la Oferta de Empleo Público de estabilización, reduciendo las mismas.

En este sentido, resulta prudente facultar a la gerenta de KABIA para que, en caso de dictarse nuevas sentencias de fijeza, modifique a la mayor brevedad posible el número de dotaciones incluidas en la citada Oferta de Empleo Público y proceda a su inmediata publicación.

Por otro lado, advertido error en la denominación en euskera de la plaza de ayudante/a cocina, se debe proceder a su corrección.

Horregatik, lehendakariak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Gobernu Batzordeak

Por todo lo cual, a propuesta de su presidenta, previa deliberación, la Junta de Gobierno

ERABAKITZEN DU

ACUERDA

LEHENA.- KABIA foru organismo autonomoaren 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintza aldatzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko plazei dagokiena. Eskaintza hori Gobernu Batzordeak onartu zuen 2022ko maiatzaren 25ean egindako ohiko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko maiatzaren 30ean, 2022ko abuztuaren 5eko Aldizkari Ofizialean argitaratutako akatsen zuzenketa alde batera utzi gabe.

PRIMERO. - Modificar la Oferta de Empleo Público de 2022 del organismo autónomo foral KABIA, correspondiente a las plazas de estabilización de empleo temporal aprobada en la sesión ordinaria de la Junta de Gobierno celebrada el día 25 de mayo de 2022, y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del día 30 de mayo de 2022, sin perjuicio de la corrección de errores publicada en el citado Boletín Oficial el día 5 de agosto de 2022.

Zehazki, lan-kontratupeko langileentzat deitutako Zaintzaile/Egoitza-laguntzaile/Klinika-laguntzaile/Osazun-laguntzaile plaza bat lan eskaintzatik kentzea erabaki da.

En concreto, se acuerda excluir una plaza de Cuidador-a/Auxiliar de residencia/Auxiliar de clínica/Auxiliar sanitario/a, de las convocadas para personal laboral.

BIGARRENA.- Langile funtzionarioentzat deitutako sukaldeko laguntzaile plazaren euskarazko izendapena zuzentzea, jarraian adierazten den eran:

SEGUNDO.- Corregir la denominación en euskera de la plaza de ayudante/a cocina convocada para personal funcionario, en los términos que se señalan a continuación:

— Esaten duenean:

— Donde dice:

LANGILE FUNTZIONARIOAK / PERSONAL FUNCIONARIO

Plaza	Taldea / Azpitaldea Grupo / Subgrupo	Guztira Total	Derrigorrezko HE duten plaza kopurua Nª de plazas con PL preceptivo	Lehiaketa	Lehiaketa-oposizioa		
				Concurso	Concurso-oposición		
				Txanda librea Turno libre	Txanda librea Turno libre		
				Izaera orokorra Acceso general	Izaera orokorra Acceso general	Desgait. gordeak Reserva disc.	
						Best. / Otras	Intel. / Intel.
Sukaldari laguntzailea Ayudante/a cocina	E	1	0	1			

— Esan behar du:

— Debe decir:

LANGILE FUNTZIONARIOAK / PERSONAL FUNCIONARIO

Plaza	Taldea / Azpitaldea Grupo / Subgrupo	Guztira Total	Derrigorrezko HE duten plaza kopurua Nª de plazas con PL preceptivo	Lehiaketa	Lehiaketa-oposizioa		
				Concurso	Concurso-oposición		
				Txanda librea Turno libre	Txanda librea Turno libre		
				Izaera orokorra Acceso general	Izaera orokorra Acceso general	Desgait. gordeak Reserva disc.	
						Best. / Otras	Intel. / Intel.
Sukaldeko laguntzailea Ayudante/a cocina	E	1	0	1			

HIRUGARRENA.- KABIA foru organismo autonomoaren gerenteari ahalmena ematea, auzibidean finkotasun-adierazpen gehiago egoten badira, aldi baterako enplegua egonkortzeko funtzionarioen eta lan-kontratadun langileen plaza hutsei dagokien 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako dotazioen kopurua berehala alda dezan.

Aldaketa horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta Gobernu Batzordeari lehenbailehen jakinaraziko zaizkio.

LAUGARRENA.- Erabaki hau bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete administrazioarekiko auzien Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik aukerako berraztertze-errekurtsua aurkezteko Gobernu Batzorde honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut Donostian, 2022ko abenduaren 22a.- KABIAko Gobernu Batzordeko idazkaria. (8643)

TERCERO. - Facultar a la gerenta del organismo autónomo foral KABIA para que, en el caso de que se produzcan nuevas declaraciones de fijeza en vía judicial, proceda a modificar de inmediato el número de dotaciones incluidas en la Oferta de Empleo Público de 2022 correspondiente a las plazas vacantes de personal funcionario y laboral de estabilización de empleo temporal.

Dichas modificaciones se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y de ellas se dará cuenta a la mayor brevedad a la Junta de Gobierno.

CUARTO.- Publicar en su integridad el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.”

Y para que conste, extendiendo la presente certificación en San Sebastián, a 22 de diciembre de 2022.- La Secretaria de la Junta de Gobierno de KABIA. (8643)